

# getxoBerri



**Getxo**

*bizi ezazu*



#GetxoBiziEzazu

Doako alea

1504 zb.  
www.getxo.net

Ekainak 7  
>> Ekainak 17

2018

## / Nabarmentzekoak

- > La Terraza udal eraikina lizitazio prozesuan (2. or.)
- > Kale antzerkia, asteburuko protagonista Romon (4. or.)
- > Emaizta apartak Romoko harrobiarentzat (5. or.)

## “LaKantero Prototyping 3DLAB” jardunaldia, ekainaren 22an, Arrigunagan

(3. or.)



**Getxo, hiri berdea.** Tailerrak, hegaztiak eraztuntzea, landare espezie inbaditzaile exotikoak kentzea eta zinea ekainaren 7tik 11ra.

**A-**  
GENDA

**11. Getxotar Abesbatzen Eguna.** Ekainaren 17an, igandea, 18:00etan, Algortako Biotz Alai plazan, 11 abesbatzen emanaldia.

**1,2 milioi bideratuko dira parte hartze izaerako aurrekontuen proiektuak finantzatzeko**

## Osoko Bilkurak inbertsio osagarriak onetsi ditu, 3,3 milioi euro baino gehiagokoak

Udalaren maiatzeko osoko bilkurak inbertsioak finantzatzeko zenbait proposamen onetsi zituen, 3,3 milioi euro baino gehiagoan. Haien artean 1,1 milioi nabarmendu behar dira, bide publikoan jarduketak egiteko (Areetako Geltokia eta Alangoko plazak berregokitze, asfaltoa jartzeko, ...), milioi bat baino gehixeago 2018ko parte hartze izaerako aurrekontuetan herritarrek lehenetsitako proiektuak finantzatzeko, eta 200.000€ Santa Anan (Areea) *Getxo Txukun* parte hartze programatik eratorritako jarduketa batzuetarako. Parte hartze izaerako aurrekontuen kasuan, 90.000€ irisgarritasuna hobetzeko bideratuko dira, igogailu berri batekin, Aiboako geltokitik desnibela kentzen duena; 100.000€ gehituko dira, 500.000 euroraino, zazpi komun publikotarako (lau berriak izango dira, bi berriztatuko dira, eta beste bat egokitu), eta 55.000€ parke eta lorategiak hobetzeko partida gehitzera bideratuko dira.

*Getxo Txukun* prozesuan dauden 200.000 euroetatik 167.000€ Bidebarrieta kalea (Amaia eta Ibaibide artean) berriztatzeke izango dira, plataforma bakar bihurtuz. Gainerako 33.000€ak Amaia kaleko autobus geltokia, anbulatorioaren ondoan, berriztatzeke inbertituko dira, dagoeneko bukatuta dauden beste jarduketak batzuekin batera.

### Zuzenketak eta eztabaida

Aurkeztutako lau zuzenketak ezetsi egin ziren: lehena Guk, EH Bildu eta Ciudadanos-ek elkarrekin aurkeztu zuten, diruzaintzako gerakinek



300.000€ Romoko Ibar Nagusien Etxea elkarteak erabiltzen duen eraikinaren saneamendu eta mantentze lanei bideratzeko. Beste hiruak EH Bildurenak izan ziren: 500.000€ Romoko Nagusien Etxearen eraikinean eguneko zentroa eraikitzeke, Emakumeen Etxea sortzeke eta fidelizazio komertzialeko txartela martxan jartzeko erabil daitezzen, hurrenez hurren. Udal gobernuaren eta PPren ustez, udal eraikinen mantentze partida nahikoa da, aurreko urteetan frogatu denez. EH-Bilduk planteatu-

tako fidelizazio txartelari dagokionez, udal gobernuak uste du indarrean dagoen *GetxoBono* proposamena askoz ere eraginkorragoa dela eta, betiere, horixe bultzatu beharko litzatekela. Bai Guk-ek bai EH-Bilduk kreditu gehigarrietako askoren aurka bozkatu zuten, hala nola bide publikoko inbertsioak, “zehaztasun eta zorroztasun eza-gatik, ez baita zehaztu noiz eta zelan gauzatuko diren planteatutako proiektuak”. Udal gobernuak erantzun zien “informazio batzordeak, hain zuzen ere, galderak

egiteko eta zehaztasunak emateko daudela”.

Beste kasu batzuetan, GUK eta EH Bildu abstenitu egin ziren, adibidez, 2018ko parte hartze izaerako aurrekontuetatik eratorritako aipatutako hiru jarduketentzako eta *Getxo Txukun* prozesuko kreditu gehigarriaren kasuan. Eztabaidaren erdigunea alderdi bakoitzak parte hartzeaz duen kontzeptua izan zen.

Osoko bilkurari buruzko informazio gehiago 2.orrialdean.

**Larunbatean, hilak 9, 10:00etatik 12:00etara, Telletxe kaleko zati bat itxiko da trafikoarentzat**

## 7. Street Culture Jaialdia dator Areea eta Algortara

Algortako eta Areetako erdiguneetako kaleak kirol kantxa handi bilakatuko dira berriro ere ekainaren 8an eta 9an, GETXOAKTIBATU!-ren 7. Street Culture Jaialdia antolatuko dela eta. Jaialdia duela zazpi urte sortu zen udalaren kiroldegietan urtean zehar antolatzen diren kirol-jardueretara herritarrek hurbiltzeko asmoarekin.

Horrela, jaialdia ostiralen, hilak 8, hasiko da, 17:30ean, Biotz Alai plazan persona nagusiei zuzenduriko dantzaldi batekin. 18:00etatik aurrera, Getxo Kirolak-eko dantza-taldeen ikastaro amaie-



rako erakustaldiak eskainiko dira.

Hilaren 9an, larunbatearekin, jarduerak Telletxen eta Areetako Geltoki plazan izango dira, 12:00etatik 14:00etara bitartean. Algortan, tenis, errugbi, boilebol, irristaketa, gimnasia eta boxeoa praktikatzeko kantxak instalatuko dira. Eta Areetan, herri kirolak, tenis, saskibaloia eta gurgil-lerroko irristaketa izango dira.

Larunbateko saioa dela eta, Geltokia plazarekin paraleloan dagoen Telletxe-ko zatia itxita egongo da zirkulazioarentzat, 10:00etatik 14:30era bitartean.



Musika Eskolan, Barakaldo Schola Cantorum Gaztea, Urepel Txiki eta Ondarberri abesbatzak.

#### EKAINAK 11 ASTELEHENA

**Getxo, hiri berdea.** Romo Kultur Etxea-RKE, 19:00etan, "Bag it: zure bizitza plastikoezia al da?" dokumentalaren emanaldia. Sarrera dohainik.

**Odol-ateratzea.** Algortako Geltokia plazan, goizez eta arratsaldez.

**Erakusketa.** Algortako Kultur Etxean, Kultur Etxeak Villamonten antolatutako tailerretako ikasleak: Ehozi-ri-lanak eta Bitxigintza. Hilaren 15era arte.

**Erakusketa.** Romo Kultur Etxean, Kultur Etxeak antolatutako tailerretako ikasleak: Joskintza. Hilaren 15era arte.

**Zine tailerra.** "Amama" (zuz.: Asier Altura). 18:30ean, Villamonteko Kultur Etxean. 16 urtetik gorakoentzat. Antolatzaile: ENclave Getxo.

**Hitzaldia.** 19:00etan, Gobelaurre Boluntariotza zentroan, "Descubrimiento de punta o palo cavador neandertal de hace 90.000 años en Aranbaitza (Barrika)". Hizlaria: Iñaki Libano Silvente ("Historiaurrearen zaindaria"), arkeologo esperimentala eta zenbait ikerketa-talde eta indusketako partaide. Antolatzailea: Sipone kultur elkarte. <https://sino-peblog.wordpress.com/>

#### EKAINAK 12 ASTEARTEA

**Odol-ateratzea.** Bizkaia Zubia plazan, 16:30etik 21:00etara.

**Arratsalde lilak.** Emakumeak elkartzeko eta haien arteko laguntza kolektiboa sustatzeko gunea, 19:00etan., Amezi 6, 1.8, Algorta. Izenematea whatsapp bidez, tel.: 655 603 809.

#### EKAINAK 15 OSTIRALA

**XXV. Getxotar Dantza Eguna.** Algortako Biotz Alai plazan, 20:00etan, Dantzarteko ikasleen koreografiak.

**Asteburuko irteera. Pirineoak-Anayet eta Astún mendilerroak.** Anayet mendia (2.574m.)/Anayeten gailurra (2.559m.) eta Pic des Moines (2.349m.). Ostaturia Sallent de Gállego aldean. Antolatzaile: Etorkizuna Mendi Taldea. Tel. 606 637 128. [etorkizunamt@gmail.com](mailto:etorkizunamt@gmail.com).

#### EKAINAK 16 LARUNBATA

**XXV. Getxotar Dantza Eguna.** Algortako Biotz Alai plazan, Carmen Veraren Romoko dantza estudioko koreografiak, 18:30ean, eta Ana Lararen dantza estudiokoak, 20:30ean.

**Solaserako kafea.** "Cuerpo y descolonización. Gordofobia y otros sistemas de control", Lucrecia Massonekin, 18:00etan, Algortako Kultur Etxean. Izenematea whatsapp bidez, tel.: 655 603 809.

#### EKAINAK 17 IGANDEA

**XXV. Getxotar Dantza Eguna.** Algortako Biotz Alai plazan, 12:30ean, Areetako Flamenko Eskolako ikasleen koreografiak.

**XI. Getxotar Abesbatzen Eguna.** Algortako Biotz Alai plazan, 18:00etan, 11 abesbatzen emanaldia.

#### EKAINAK 7 OSTEGUNA

**Getxo, hiri berdea.** Hamaiketako txokoan, Errekagane 16 (Romo), 18:30ean, gozozintza osasungarriari buruzko tailerra eta ipuina, 6 urtetik gorako umeentzat, helduekin. Derrigorrezko inskripzioa, telefono edo whatsapp bidez, 652 77 17 02, edo [getxoberdea@gmail.com](mailto:getxoberdea@gmail.com) helbidean.

**GetxoMeeting.** Hamabost egunean behin egiten den batzarra da, negozio propioa duten pertsonekin eta udalerriko enpresekin. Gaia: "Master batek baino ekarpen handiagoa egin dizun liburu bat irakurri al duzu? Beste enpresa batzuetarako baliagarria den irakurgai bat partekatu nahi al duzu besteekin?" 14:30etik aurrera Getxo Elkartegian, Ogoño 1, Areetan.

#### EKAINAK 8 OSTIRALA

**Getxo, hiri berdea.** Algortako Villamonteko Kultur Areatan, 19:00etan, plastiko gubxiagorekin bizitzen ikasteko tailerra eskainiko du Marion de La Portek, sinplástico.com kooperatibako kidea. Derrigorrezko inskripzioa, telefono edo whatsapp bidez, 652 77 17 02, edo [getxoberdea@gmail.com](mailto:getxoberdea@gmail.com) helbidean.

**"Kale antzerkia bultzatuz" jaialdia.** Kale antzerkia, Romoko Santa Eugenia plazan. Ikusi 4. orrialdea.

**Kontularien kluba. 2017/18 denboraldiaren amaiera.** Algortako Kultur Etxean, 19:00etan, ipuin-kontalaria izan edo entzun nahi duten nagusiez osatutako saioa. Oraingo honetan, Ipuin txikiak + Erbeste eta babes. Sarrera dohainik.

**Krispeta lilak (zine forum).** 18:30ean, Algortako Kultur Areatan, Villamonten, "Una especie de familia"-ren emanaldia. Antolatzaile: Mujeres con Voz.

#### EKAINAK 9 LARUNBATA

**Getxo, hiri berdea.** Bolue hezeguneko ponpa-etxean, 08:30etik 13:00etara, hegaziak eraztuntzea. Etengabeke parte-hartze irekia (eguraldi txararekin bertan behera geratuko da).

**"Kale antzerkia bultzatuz" jaialdia.** Sormen-tailerra kartoiekin eta Kale antzerkia, Romoko Santa Eugenia plazan. Ikusi 4. orrialdea.

#### EKAINAK 10 IGANDEA

**Getxo, hiri berdea.** Boluntarioen ekintza Azkorriko landare espezie inbaditzaile exotikoak kentzeko. Irteera Bateriako aparkalekuan, 09:30ean. Derrigorrezko inskripzioa, telefono edo whatsapp bidez, 652 77 17 02, edo [getxoberdea@gmail.com](mailto:getxoberdea@gmail.com) helbidean.

**"Kale antzerkia bultzatuz" jaialdia.** Makillaje tailerra eta kale antzerkia, Romoko Santa Eugenia plazan. Ikusi 4. orrialdea.

**1. Umeen Abesbatzen Kontzertua.** 18:00etan, Areetako Andrés Isasi



- Lan bila nabil asteburuetan. Zaharrak eta umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko... Barnekoa edo kanpoko. Tel.: 619 36 34 21.

Norberaren iragarkiak direnez gero, aldizkari hau ez da horien edukia erantzule izango.

**Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jularitzaren telefono zerbitzua: 900 840 111**



## La Terraza udal eraikina lizitazio prozesuan

Udal osoko bilkurak, maiatzeko ohiko saioan, arauzko izapideak hastea baimendu zuen, prozedura irekiaren bidez Ereagan La Terraza udal eraikinaren esploatazio zerbitzua emateko.

Udalak, higiezinaren titularraren aldetik, hura lizitatuko du, 2. taldeko jarduerako ostalaritzako establezimendua izan dadin (tabernak, kafetegiak, jatetxeak...).

Kontratuak 10 urte iraungo du, beste 5 urtera luzatu ahal direnak, eta enpresa adjudikaziodunak 5.231,71€ ordaindu beharoko ditu hilean, gutxienez, gehi BEZa.

Kontratu berrirako, langileen subrogazioa ezarri da (gaur egun 20 dira), eta berdintasuneko eta hizkuntza-normalakuntzako klausulak sartzen dira.

## 12.000€ko larrialdiko dirulaguntza Siriarentzat

Udalak 12.000€ko larrialdiko dirulaguntza emango dio Unicefi Siriara bidaltzeko. "Honekin gure elkartasuna erakusten jarraitzen dugu, 2016an errefuxiatu siriarrantzako Jordaniako Zaatariako kanpamenduetarako Udalak eman zuen dirulaguntzaren ondoren eta babes bila dabiltzan pertsonak udalerrian hartzen. Gainera, Lankidetzako lan taldean aho batez erabakitako laguntza izan da aipatutakoa", nabarmendu du Irantzu Uriartek, Garapeneko Lankidetzako zinegotziak.

Siriaren krisia duela zazpi urte hasi zen eta epe horretan giza garapenerako adierazleek ia lau hamarkadako atzerapena izan dute. Nazio Batuen datuen arabera, 13 milioi pertsona laguntza humanitaria behar dute eta horietatik 5,3 milioi adingabeak dira (19.000 adingabek desnutrizio larria jasaten dute). Gerrak gogor jo ditu oinarriko zerbitzuak, gizarte zerbitzuak eta osasun zerbitzuak.



© UNICEF/UN0185389/Khabieh

Egoera horretan Unicefen egitasmoaren helburua da 10.905 pertsonari oinarriko osasun zerbitzuak ematea. Kopuru horretatik erdiak adingabeak izango dira, eta erdiak emakumeak. Hain zuzen ere, lehen mailako osasun zentroi eta pertsonen lagunduko diete, mediku horniduren, oinarriko botiken eta klinika mugikorren bitartez.



## Glass, Supersonido eta Cerrajería Josu-ri esker ona

GetxoEnpresak, orain dela gutxi egindako urteko topaketan, elkartean urteak eman dituzten hiru enpresari esker ona adierazi die. Cerrajería Josu, Algortako Sarrikobaso kalean kokatuta dagoena, familiako enpresa bat da, ia 50 urte dituena; Glass Grill Urbano-k ateak zabaldu zituen 2002garren urtean Areetako Mayor kalean eta Supersonido, Algortako Torrene kalean dagoena, familiako negozioa da, orain dela 30 urte hasi zena. Topaketa bazkideen eta enpresen artean kontaktuak areagotzeko eta negozio aukera berriak sortzeko izan zen.

## Osoko bilkuraren mozioak

Maiatzeko udalbatzak hiru mozio ontzat eman zituen; testigantza izaerakoak dira, ez lotesleak.

\* Guk-ek bi mozio onartzea lortu zuen. Lehenengoaren bidez, besteak beste, udalari, foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari eskatzen zaie beharrezko jarduketak egin ditzatela Europako Komisioren plastikoen inguruko helburuarekin bat egiteko: EBko merkatuko plastikozko ontzi guztiak birziklagarriak izan daitezela 2030erako, plastikoen kontsumoa murriztea, mikro-plastikoen erabilera mugatzea, eta bilgarri guztiak berrerabilgarriak edo birziklagarriak izan daitezela 2030. urterako. Horretan dagoeneko lanean ari dira Getxoko hondakinak kudeatzeko taldea eta erakundeak, Hirigintzako zinegotziak adierazi zuten. Guk-en beste mozioak, PPK trantsakzionatu zuenak, eskatu zuen Neguriko geltoki zaharreko eraikinaren titulartasuna har dadila eta haren erabilera definitzeko parte hartze prozesua has dadila.

\* Beste mozio bateratu bat ere aurrera atera zen, Guk, EH Bildu eta Ciudadanos-ek aurkeztua, udalak bitarteko material eta giza baliabide nahikoak bermatu ditzan eta aurrekontua egin dezan Romoko Kultur Etxeak bere jardura (gimnasioa, liburutegia...) Lope de Vega kaleko kokalekuan egiteko, eta Romo Kultur Etxe berri-ramandako ile-apaindegi, podologia eta fisioterapia zerbitzuak hara itzultzeko. Udal gobernuak ez zuen mozioa babestu: "eraikinak irekita jarraitzen du eta Ibar Nagusien Etxea elkarteak hura erabiltzen jarrai dezake. Elkarteak ez da lekuz aldatuko eta eraikina ez da itxiko, harik eta osoko bilkuran akordio bat lortu arte. Udalak adineko pertsonentzako udal politikak garatuko ditu, adineko getxotar guztiarentzat, Romo Kultur Etxean, legegintzaldiko planean jasotzen zenez". Gainera, gobernuak gogora ekarri zuen "aukera bikaina dela lurzorua askatzeko eta etxebizitza babestuen eraikitzeke gazteentzat, eraikin horretan".

\*Azkenik, Ciudadanos-en mozio bat onetsi zen, udal gobernuari eskatzeko beharrezko gestioak egin ditzala eta beharrezko baliabideak ezar ditzala datorren uztailaren 1ean Getxon Donizetiren Lucía de Lammemoor operaren zuzeneko emanaldiaz gozatu ahal izateko; Teatro Real de Madrid-ek eskainiko du, bere 200. urteurrenean.

\*Jendearen galdera eta eskaeren txandan, Romoko Ibar Nagusien Etxea elkarteke ordezkariak hitz egin zuen eta bere aldarrikapenak azaldu zituen.

## Aurten 34 lagunek parte hartu dute 3D inprimaketako tailerretan, Udalak “3DLAN.org” elkartearekin batera sustatuak “LaKanterera Prototyping 3DLAB” jardunaldia, ekainaren 22an, Arrigunagan

LaKanterera Prototyping 3DLAB izeneko espazioan 3D diseinuak eta inprimaketak skate-ko prototipoak egiteko eskaintzen duten aukera guztiak erakutsiko dira. Parte hartzeko espazio irekia izango da eta sortu-diseinatu-inprimatu dinamikak sortuko dira bertan. Espazio hori kudeatzeaz arduratuko da 3DLAN elkarteak, Getxo Kirolak-ekin eta Getxolan Udaleko Ekonomia Sustapeneko Arloarekin elkarlanean. Ekainaren 22a baino lehen, skatean ibiltzen direnek ideiak, eskaerak eta erronkak (babesleak, skatea norberaren zaletasunei egokitzeko produktuak...) adierazi ahaliko dituzte sare sozialaren bitartez. Interesa duten pertsonak beren ideiak bidali beharko dituzte @3dлан\_оrg helbidera edo @3dлан\_оrg idatziz, eta ekainaren 22an erantzuten saiatuko dira.

### Jarduera-egitaraua

Arrigunagako pistan hainbat jarduera egingo dira:

\* 17:00. LaKanterera Prototyping 3DLAB abian jartzea: 3D inprimagailuak martxan, 3D inprimaketako laborategi txiki batek nola funtzionatzen duen azaltzea, azalpen praktikoak *in situ*, etab.

\* 17:30. Kirolaren esparruan 3D inprimaketa erabiltzeko laginak: 3D-n inprimatutako objekturen bat aurkeztea, skateari lotuta dagoena.

\* 18:00. 3D inprimaketarekin gauzatu daitezkeen skateari lotutako erronkak identifikatzeko dinamika. Skatean ibili ohi direnek aurretiaz adierazitako erronkak.

\* 19:00h. 2-3 erronka aukeratzea eta lehen diseinuak egitea batera.

\* 21:00h. Jardueren amaiera.

### 3D tailerrei buruzko balantzea

Aurten 34 lagunek parte hartu dute 3D inprimaketako tailerretan, Udalak 3DLAN.org elkartearekin batera sustatuak. Ekimen honen bidez, kirolaren eta ongizatearen eremuko erronkak bilatu dira, 3D diseinuaren eta inprimaketaren teknologiarekin erantzun ahal zaienak, eta gizarte-arloan eta merkatuan inpaktu potentziala duten produktuak sortu. Alor tematiko hauek landu dira: taldeko kirolak (errugbia, futbola, saskibaloia, ...), uretako kirolak (bela, igeriketa, surfa, ...), banako kirola (runninga, tenisa, fitnessa, skatea,

...) eta bizitza egokitua (ezintasunak, adineko pertsonak, ...). Plan-teatutako prozesuak zenbait fase zituen: 1) beharrezan identifikatzea eta ideiak sortzea; 2) diseinua-workshopa eta 3) 3D fabrikazioa eta inprimaketa.

### Faseak eta prototipoak

Soluzioak asmatzeko lehenengo fasean 34 erronka egin ziren. Horietatik 16 aukeratu ziren diseinu-faserako, merkatuko aukeren eta egingarritasunaren irizpideekin, prototipoak sortzeko. Azkenik, 11 piezako diseinuaren amaiera lortu zen, eta lehenengo prototipoak inprimatu ziren: zango-babesak; kirol-arrantzarako apeu argidunak; gilak, ingurune leunagoekin, moztan ez dutenak; kapsula estankoa, giltzak (autokoak, etxekoak etab.) gordetzeko; algen deflektoreak: lemaren babesak, algarik ez dadin kateatu; arrautza-ontzia / funtzio askotako kaiola, moduluduna, Boccia kiroleko bolak gorde edota harrapatzeko, desgaitasuna duten



Funtzio askotako kaiola, moduluduna, Boccia kiroleko bolak gorde edota harrapatzeko

pertsonentzat diseinatutako jokoa; plastikozko atzamar-ferula zurruna / irmoa, atzamarren azken falangea ez dadin tolestu; egokitzailea / gida / posizionatzailea / besoen ferula, umeei golfean jokatzen laguntzeko; erabilera askotako heldulekua; ortesi antiiekinoia eta plataforma egokitua, atzazalak mozteko gailua erabiltzeko.

Hamaika prototipo horietatik, helburua

orain gutxienez 4 identifikatzea da, negozio-aukerak sortzeko aukerekin, eta Getxo gizarte eta ongizate alorretan berrikuntzari irekitako espazioa izan dadin apustu egiten jarraitzeko helburuarekin.

## Itsas hondoren garbiketa

1m2 naturaren alde goiburupean Itsas Zaindariaren Sareko urpekariek itsas hondoa garbituko dute Algortako Portu Zaharrean hilaren 16an, larunbata, 10:00etatik aurrera. Itsas ekintza hori Marefondum elkarteak antolatu du, besteak beste, Udalaren laguntzarekin. Helburua da hiritarrak sensibilizatzea, gizakion jarduerak kostaldean, ozeanoetan, aintzira eta ibaietan dituen ondorioen inguruan.

Ekintza egiteaz gainera, ekologiarekin arduratsua izateagatik diploma-egiaztagiri bat emango diote antolatzaileek Getxoko Udalari, itsas hondoa garbitzeko ekimena babestean argitu.

Ekintzari buruzko gaituzte gehiago jasoitzeko [marefondum@gmail.com](mailto:marefondum@gmail.com) helbideraren bitartez harremanetan jarri.

## “Ondare kulturala eta generoa: museotik hezi” bazkari-solasaldia



Getxoko eCivis elkarteak bazkari-solasaldia antolatu du *Patrimonio Cultural y género: educar desde el museo* izenburupean. Hilaren 15ean, ostirala, egingo da, 14:30ean, Faturako Ostalaritza Eskolan. Eztabaidarako topaketa horretan M<sup>o</sup> José Torrecillak, La Encartada Museo-Fabrikako kontserbazio teknikari eta heziketa programetako arduradunak, hartuko du parte. Ehun urtetik gorako tokia da La Encartada, 1892an sortu zenetik eta 1992an itxi zen arte, puntu-lanak ekoiztu dituen eta gaur egun Bizkaiko industriaren panoraman ale paregabea dena. Ekitaldian parte hartzeko lekua mugatua da. Menuaren salneurria: 15€ (BEZ barne). Informazioa eta izenemateak: tel.: 620 237 036 eta [info@ecivis.eus](mailto:info@ecivis.eus)



## Kale antzerkia, asteburuko protagonista Romon

Kale antzerkia bultzatuz jaialdia Romoko Santa Eugenia plazan ospatuko da aurten, Eusko Jaurlaritzak bultzatuta; eta jaialdiko antzezpen gehienak ekainaren 8an, 9an eta 10ean izango dira.

Lehenengoa, ostiral honetan, hilak 8, 19:00etan, Ganso & Cía taldearen eskutik; testurik gabeko ikuskizuna ekarriko du, *Babo Royal*, adin guztietako ikusleentzat.

Larunbatean, hilak 9, sormen-tailerra kartoiekin izango da, 12:00etan, 5 ur-

tetik gorako umeentzat eta beren gurasoentzat (30 lagunentzako eta horien laguntzaileentzako lekua izango da); horrez gainera, hiru antzezlari eskainiko dira: *Ondorengoak* (testurik gabe eta adin guztientzat), *Zirika Zirkus-ekin*, 13:00etan; *¡Bola va!* (testurik gabe eta familia osoarentzat), *Imaginaciones Nai-ekin*, 19:00etan; eta *Freshcool* (euskaraz eta adin guztientzat), Tio Teronen semeak taldearekin.

Igandean, hilak 10, makillaje tailerra

antolatuko da 12:00etan, elebiduna eta nahi duten guztientzat. Antzezlanen dagokienez, 13:00etan *Bole Bole Toronbole* eskainiko du Dramagia eta Toni La Salek (euskaraz, haurrentzat eta familia osoarentzat); eta 19:00etan, *¡Sefini!* antzeztuko du Trapu Zaharrak (gaztelaniaz eta adin guztientzat).

Larunbatean, hilak 23, 18:00etan, Zubiletako jaien barruan, *Ttiki Ttaka* ikusiko da, Erre Produzioak-en antzezlana, euskaraz eta adin guztientzat.

## 1. Umeen Abesbatzen Kontzertua

Ondarreta Abesbatzak 1. Umeen Abesbatzen Kontzertua antolatu du igande honetan, hilak 10, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 18:00etan. Lehiaketa horretan parte hartuko duten taldeak, honako hauek dira: Barakaldoko Schola Cantorum, Anabe Hernández Soengasen zuzendaritzapean eta Carlos Imaz pianoarekin; Sopelako Urepel Txiki Abesbatza, Irma Rutkauskalte-Egiluzen zuzendaritzapean eta María Vega pianoarekin; eta Ondarberri Abesbatza (Ondarretaren umeen abesbatza), Iker Herro Barrenkuaren zuzendaritzapean eta Lupe López Castelo pianoarekin. Errezitaldian, Josu Elberdin, David Azurza, Xabier Lete, The mama's & the papa's, Ennio Morricone eta John Lennonen kantak interpretatuko dituzte, besteak beste.

## Esklerosi anitzaren aldeko kontzertua

Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan egingo da larunbat honetan, hilaren 9an, Bilboko Abesbatza eta Ganbera Orkestraren kontzertua. Errezitaldia Getxoko Rotary Club elkarteak antolatu du, zenbait erakunderen babesarekin. 19:00etan hasiko da kontzertua eta sarrera 7,50 euro da. Bertan bildutako diru guztia Euskadiko Esklerosi Anitzaren Fundazioari emango zaio, gaitz horrek jota dauden pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko lana egiten duena, sentsibilizazioaren eta haien eskubideen defentsaren bitartez.


**Atal horretan parte hartu nahi duten taldeek eta profesionalak ekainaren 22ra arte aurkeztu ahal izango dituzte proiektuak**

## Antzerki Jardunaldietako antzerki arinaren atalean parte hartzeko izen-ematea zabalik da

Kultur Etxeak zabaldu berri du XXXVI. Antzerki Jardunaldietako antzerki arinaren atalean izena emateko epea. Atal horretan parte hartu nahi duten taldeek eta profesionalak ekainaren 22ra arte aurkeztu ahal izango dituzte beren lanak. Jasotako proposamenen artean hamar hautatuko dira eta horiek urriaren 7an eta 14an antzeztuko dira Algortako Kultur Etxean.

Aurkeztutako lanek gutxienez 15 minutu iraun behar dute eta gehienez, 20 minutu. Testuak ezin daitezke beste lan batzuen moldaketak izan. Lanak gaztelaniaz zein euskaraz izan daitezke, eta euskarazkoei lehentasuna emango zaie. Horrez gain, genero parekotasuna aintzat hartuko da, bereziki zuzendaritzari eta dramagintzari dagokienez.

Halaber, ezinbestekoa da antzezlariak proposatutako lekuari egokitzea. Izan ere, bertan ez da soinu eta argiztapen sistemarik egongo (partaideek elementu horiek jarri ahal izango dituzte, baldin eta konplexuak ez badira). Aukeratutako antzezlari bakoitzak hiru aldiz antzeztuko da egun berean. Informazio orokorra eta parte hartu



ahal izateko arauak <http://teatrobrevegetxo.wix.com/antzerkiarinage-txo> webgunean daude. Proposamen guztiak epearen barruan bidali behar dira [teatrobrevegetxo@hotmail.com](mailto:teatrobrevegetxo@hotmail.com) posta elektronikora eta hautaketa uztailean izango da. Hil horretan hautatutako lanak zeintzuk diren jakinaraziko da.

## Algortako San Inazio jaierarako kartel-lehiaketa

San Inazioko jai batzordeak Algortan uztailearen 28tik 31ra bitartean egingo diren jaierarako kartel-lehiaketa antolatu du. Kartelek DIN A3 neurria (ez-etzana) eduki beharko dute, gaia librea izango da baina ondoko goiburuak ipini beharko dira, derrigorrez: *Algortako Saninazioak 2018, Uztaileak 28-31, Jaieran ere euskaraz!*

Kartelei ez zaie ipiniko egilearen izenik. Horrekin batera, goiburu berbera daraman kartazal bat aurkeztuko da, eta barruan egilearen izen-abizenak, DNI zenbakia, helbidea, telefono-zenbakia eta helbide elektronikoa. Beharrezkoa da CDa aurkeztea kartelekin batera, horien irudi digitalizatuarekin.

Ez dute mezu edo irudi sexistarik, ho-

mofoborik, arrazistarak edo xenofoborik daukan kartelik onartuko; lan horiek lehiaketatik kanpo geratuko dira zuzenean. Irabazleak 300 euro jasoko ditu eta saritu barik geratzen diren kartelak egileei itzuliko zaizkie.

Lanak ekainaren 28ra arte, Algortako kultur etxean (Villamonte kalea, A-8) aurkeztu ahal izango dira.

Ekainaren 30ean, 12:00etatik 14:30era, lehiaketara aurkeztutako kartel denak egongo dira ikusgai, San Nikolas plazako frontoian. Gogokoena bozkatzeko gerturatu ahal izango dira herritarrak. Informazio gehiago: [aixerrota.jaibatordea@gmail.com](mailto:aixerrota.jaibatordea@gmail.com) eta [www.facebook.com/algortakojaiabatzordea](http://www.facebook.com/algortakojaiabatzordea)

## 65.000€ hezkuntza alorreko diru-laguntzetan

Udalak 65.000€ bideratuko ditu 2018an heziketa alorrean diru-laguntzak emateko honako lerro hauetan:

1. Lerroa: Interes publiko eta sozialeko jarduerak, Getxoko ume eta gazteen gurasoei zuzenduak, heitzen orientatze eta laguntzeko.
2. Lerroa: Ingurumen arloko hezkuntza proiektuak eta -jarduerak, udalerriko ikastetxeetako ikasleentzat.
3. Lerroa: Eskolaz kanpoko jarduerak Getxoko ikastetxeetako gaitasun handiko ikasleei zuzenduak.

4. Lerroa: Gela egonkorretan eta Getxoko ikastetxe publikoetako ikasle gorrentzako programetan garatutako jarduerak.

5. Lerroa: Eskolaz kanpoko jarduerak eta jarduera osagarriak, Getxoko lehen hezkuntzako eta helduentzako ikastetxe publikoetan garatutakoak. Eskaerak aurkezteko epea izango da: 2. lerroa: ekainaren 25era arte eta gainerrako lerroak: uztailearen 4ra arte. Informazio gehiago: [www.getxo.eus/hezkuntza](http://www.getxo.eus/hezkuntza).

# Emaitza apartak Romoko harrobiarentzat

Romo Futbol Elkarteko bi taldek emaitza bikainak lortu dituzte parte hartu duten azken txapelketa ofizialetan. Kadetea eta 2. urteko umeen taldea dira eta, horrenbestez, amaiera ezin hobea eman diote denboraldiari. Kadeteek Euskal Kopa irabazi zuten iragan asteburuan, Gasteizen jokatu zen finalean. 3 eta 5 irabazi zieten gasteiztarrei. Liga Txapelketan bestalde, Romoko gorritxoak seigarren tokian sailkatu dira, kate-



goriako talde indartsuenen atzetik: Real Sociedad, Athletic, Alavés, Danok Bat eta Antiguoko.

Beste alde batetik, 2. urteko ume mailako taldea bigarren sailkatu zen Euskadiko kimu eta lehen eta bigarren urteko umeen futbol Txapelketetan; horiek ere iragan asteburuan jokatu ziren. Antiguoko gipuzkoarrak izan ziren txapelduinak eta Danok Bat taldea hirugarren tokian sailkatu zen.



## Talde indartsuak Bizkerreren Txapelketan

Emakumezkoen Getxoko Nazioarteko Futbol Txapelketa-Roberto Tamayo Memorialaren hamabigarren aldia asteburu honetan jokatu da, ekainaren 9 eta 10ean, Bizkerre Futbol Taldeak antolatuta, Udalaren laguntzarekin.

Aurten ere talde indartsuak izango dira txapelketan, izan ere, Iberdrola Ligako lau talde gonbidatu baitituzte, estatuko maila gorenekoak: Athletic Club, 2017-18 denboraldian hirugarren sailkatua, Valentzia, bosgarren sailkatua, Betis, seigarrena, eta Madril, hamargarrena. Talde-zerrenda osatzen dutenak dira Eibar, Bigarren Mailakoa, eta etxeko taldea, Bizkerre, datorren denboraldian maila horretan ere jokatu duena.

Kanporaketak larunbatean jokatu dira 10:30etik aurrera Bolueko 1 eta 2 zelaietan. Goizean, zuzeneko norgehiagokak jokatu dira, igandeko final handia erabakiko dutenak. Fudurako belar naturaleko zelaietan jokatu da finala, 12:15ean. Lehengo, 5. eta 6. postuak erabakiko dituen partida 9:30ean hasiko da; eta 3. eta 4. postuak erabakiko dituen 10:40an. Partida guztiak ikusteko sarrera dohainik da.

Kirol txapelketa hau dela eta, Getxo Kirolak-ek aparkaleku alternatiboak dauka Aiboako Getxo II Institutu zaharrean, Bolueko futbol zelaietatik 5 minutura oinez.



## Euskadiko txapeldun nagusiak hondartza-boleian

Maidar Santxo eta Katalin García, Getxo Aixerrota Boleibol Kirol Taldeko jokalariek lehen aldiz eskuratu dute Euskadiko hondartza-boleiko Txapelketa senior mailan. Titulu berri hori aurten gazte eta junior mailetan Euskadikoan ere lortutakoei gehitzen zaie.

## UDAKO KIROL CAMPUSAK

ANTOLATZAILEA	PROGRAMA	ADINA	EGUNAK	PREZIOA	HARREMANA
GETXOKO GIMNASIA KLUBA	Gimnasia erritmikoarekin loturiko jarduerak Faturan	5/18 urte	Ekainak 25-29; uztailak 2-13; eta uztailak 16-27 8:30-14:00	100/220€	<a href="mailto:club_ritmica_getxo@hotmail.com">club_ritmica_getxo@hotmail.com</a> Tel.: 685 545 032
GETXOKO SASKIBALOI KLUBA	Saskibaloia Gobelan	6/14 urte	Ekainak 25-29 8:30-14:30 8:30-17:00	30/195€	<a href="mailto:getxosaski@gmail.com">getxosaski@gmail.com</a> Tel.: 657 773 523
GETXOKO HONDARTZAK TENIS KLUBA	Tenis eta kirol anitza Faturan	6/18 urte	Ekainak 25-29 9:00-14:00	50/150€	<a href="mailto:tenisplayasdegetxo@gmail.com">tenisplayasdegetxo@gmail.com</a> Tel.: 685 751 688
GETXO IRRISTAN KIROL KLUBA	Hockey patinak, patinajerako hastapena Faturan	4/11 urte	Ekainak 25-29 8:30-15:00	80€	<a href="mailto:klub@getxoirristan.com">klub@getxoirristan.com</a> Tel.: 670 733 824
GETXO AZKARRENAK IRRISTAKETA KIROL KLUBA	Patinajea lerroan eta kirol anitza Gobelan	3/12 urte	Ekainak 25-29 8:30-14:30 8:30-17:00	30/540€	<a href="mailto:ander.i@clubpatinajelineagetxo.com">ander.i@clubpatinajelineagetxo.com</a> Tel.: 664 570 994
GETXO ERRUGBI TALDEA	Errugbia eta kirol anitza Faturan	8/12 urte	Ekainak 25 - uztailak 27 9:00-14:00	55€/ asteko	<a href="mailto:idazkaritza@getxorugby.eus">idazkaritza@getxorugby.eus</a> Tel.: 688 874 714
GETXOKO XAKE KLUBA	Xakea erreminta pedagogiko eta sozializatzaile gisa	6/14 urte	Ekainak 25-29 8:30-13:00 15:00-18:00	58/116€	<a href="mailto:info@damagaztea.com">info@damagaztea.com</a> Tel.: 688 677 874
GETXOKO KK	Futbola Faturan	5/14 urte	Ekainak 25- uztailak 27 8:30-14:00	90€/ asteko	<a href="mailto:campus.getxofutbola@gmail.com">campus.getxofutbola@gmail.com</a> Tel.: 615 982 663
HASZTEN ELKARTEA	Campus inklusiboa eta egokitua Getxoko Saskibalo Klubarekin eta Getxo Azkarrenak Iristaketa Kirol Klubarekin batera	7/20 urte	Ekainak 25-29 9:00-14:00	22€/ eguneko	<a href="mailto:hasztenkirola@gmail.com">hasztenkirola@gmail.com</a> Tel.: 699 609 588
GETXO KAYAKA UR CAMPUSA	Kayak, bela, paddle surf, aquarium, gymkana eta ibilaldiak kirol-portuan	7/12 urte	Ekainak 25-irailak 7 9:00-14:00	100€/ asteko 190€/ hamabost eguneko	<a href="mailto:getxokayaka@yahoo.es">getxokayaka@yahoo.es</a> Tel.: 652 133 540
GETXO KAYAKA TXIKIEN TXOKOA	Kayak, bela, paddle surf, aquarium, gymkana eta ibilaldiak kirol-portuan	4/6 urte	Ekainak 25-irailak 7 9:00-14:00	90€/ asteko 170€/ hamabost eguneko	<a href="mailto:getxokayaka@yahoo.es">getxokayaka@yahoo.es</a> Tel.: 652 133 540
GALEAKO KK	Atezaintzako entrenamendu espezifiko eta kirol anitza Faturan	8/18 urte	Ekainak 25-29 9:30-13:30	100€	<a href="mailto:unoy13@gmail.com">unoy13@gmail.com</a> Tel.: 676 471 175
AREETA-ROMO KT	Futbola Gobelan	5/14 urte	Ekainak 25- uztailak 27 8:30-14:30	90€/ asteko	<a href="http://www.romoarenas.com">www.romoarenas.com</a> Tel.: 657 268 606
GETXOPORT KIROL KLUBA	Eskaladako oinarrizko nozioak Fudurako rokodromoan	8/16 urte	Ekainak 25-29 9:00-13:00	120€	<a href="mailto:rocodromogetxo@gmail.com">rocodromogetxo@gmail.com</a> Tel.: 639 137 109
GETXO TRIATLOI TALDEA	Triatloia Faturan	8/15 urte	Ekainak 25-29 9:00-13:00	120€	<a href="mailto:getxotri.info@gmail.com">getxotri.info@gmail.com</a> Tel.: consultas por email
GETXOKO NORTHWIND KLUBA	Paddle surf Arriluzeko kaian	9/14 urte	Ekainak 25- uztailak 30 9:00-14:00 10:00-12:00	130€/ asteko	<a href="mailto:clubnorthwindgetxo@gmail.com">clubnorthwindgetxo@gmail.com</a> Tel.: 717 770 602
GETXOKO HOCKEY STICK KLUBA	Hockey eta surfaren inguruko jarduerak	7/15 urte	Uztailak 2-6 9:30-20:30	195/655€	<a href="mailto:info@hockeysurfcamp.com">info@hockeysurfcamp.com</a> Tel.: 627 036 911 / 699 511 189
GETXOKO PATINAJE SHOW KLUBA	Patinaje artistikoa Andra Marin	4/16 urte	Uztailak 2-27 9:30-13:30	20/270€	<a href="mailto:info@cpsshowgetxo.com">info@cpsshowgetxo.com</a> Tel.: 615 501 624
GETXO IGERIKETA	Jolasak Ereagako hondartzan	4/12 urte	Ekainak 25- uztailak 27 8:30-14:30	30/350€	<a href="mailto:urkogiw@gmail.com">urkogiw@gmail.com</a> Tel.: 651 703 887
GETXO ATLETISMOA	Atletismoa Faturan	8/16 urte	Uztailak 2-30 9:00-14:00	50€/ asteko	<a href="mailto:getxoatletismoa@gmail.com">getxoatletismoa@gmail.com</a> Tel.: 688 698 882

# Udal talde politikoaren iritzia



## ONGIETORRI RKEra

RKE, Romo Kultur Etxea, abian da jada; programazio berria du eta zerbitzu guztiek bikain funtzionatzen dute. Belaunaldi arteko ekipamendua da, soziala, kulturala eta aisialdikoa; horrez gain, topagunea da, Getxoko —eta bereziki Romo eta Areetako— herritarrok bertan egindako proposamenez eta ekimenez goza dezagun. Hirugarren solairua Getxoko 60 urtetik gorakoentzat da, eta zahartze aktiboko jarduera interesgarri batean dago murgilduta jada, Adineko Pertsonekin Hiri Lagunkoien Sareko Getxo Lagunkoia programan adinekoek proposatu dituzten jarraibide eta premiak betez.

Ekimen sozial eta kulturalak; jarduera fisiko osasungarria; podologia, ile-apainketa nahiz fisio-

terapiako z e r b i - tzuak; billar-gelak; bilera-espazioak, etab. Halaber, Getxo Lagunkoia- r e n bitartez, Getxoko

60 urtetik gorakoek eskuragarri izango dituzte Romo Kultur Etxeko gainerako lokalak eta aretoak, hala nola, liburategia zein irakurketa-gela, pintura-gelak, udal-euskaltegia, entsegu-gelak eta dantzatzeko edo hitzaldiak emateko aretoak.



Hizpide dugun espazio berri horretara ez lekualdatze a r i buruz Romoko nagusien e l k a r - teak har tu duen erabakia

errespetatzen dugu, baita RKE n zenbait espazio eskatu izana ere. Gauzak horrela, Lope de Vega kalean erabili izan dituen eta erabiltzen jarraitzen dituen lokaletan jarraituko du elkarteak; izan ere, jakinarazi zaien bezalaxe, ez dira handik ateraraziko.

Udal-gobernuak hainbatetan adierazi duen moduan, egoki denean, osoko bilkura izango da erabaki beharko duena Nagusien Etxearen etorkizuna onestea ala ez. Euskal Alderdi Jeltzaleak, hauteskunde-konpromisoan eta legegintzaldi-planean islatu zuen gaur egun Nagusien Etxeak okupatzen duen lekuan Romoko gazteentzako babes ofizialeko etxebizitzak egitearen aldeko apustua. Getxoko EAJ alderdiak Romoko gazteei babes ofizialeko etxebizitzak eskaintzearen aldeko apustua duelako. Eta noski, EAJren proiektua lantzen dugunok biziki eskertzen dugu Romo Kultur Etxeko espazioak onartzea eta horren gaineko proposamenak egitea. Eskerrik asko eta ongi etorriak!

PSE-EE  
PSOE

## EZKER BALIAGARRIA

Maiatzeko osoko bilkuran, Getxoko EAJk eta PSE-EEK osatutako gobernu-taldeak gehiengoz onetsi zituen hainbat proiektu, diru-kreditu garrantzitsu eta proposamen, Getxoko herritarrek horiez gozatu eta baliatzeko. Emantzipaziorako laguntzak babesten eta bultzatzen jarraitzen dugu; hala, gazteen alokairua laguntzen dugu diruz, hutsik dauden etxebizitzaren errolda sistematikoa egiten ari gara etxebizitzak irisgarriak eta oso garestiak izan ez daitezen, eskola-materialeko diru-laguntzak zein beka eskaintzen ditugu, etab.

Alabaina, komunikabide honetan ohikoa ez bada ere, Getxoko sozialistak, Euskadi eta Espainiako gainerako herritarrek bezalaxe, PPko gobernuari (ustela dena eta judizialki zigortua dagoenari) egindako zentsura-mozioan lortutako emaitzekin pozik gaude. Epaiak dioen bezala, gaizkileen elkarteak da, lapurreta, ebasketa eta harra-pakeriarako antolatutako taldea. Azkenik ez du gobernatuko.

Guk, beti bezala, gureari eusten diogu, ezker baliagarria izaten saiatzen, Getxon zein Euskadin.

Cs

## ZURE AHOTSA IZAN NAHI DUGU

Argi daukagu zuek, getxotarrok, lehen eskutik eza-gutzen duzuela zein eraberritzelan behar dituen zuen inguruak, eta zuek izango duzuela, ziur aski,



kexa, iradokizun eta ekarpen mordoa. Azken finean, Getxoren taupada zartete. Zuon ahotsa izan nahi dugu. Jar zaitezte gurekin harremanetan: [herri-tarrak@getxo.eus](mailto:herri-tarrak@getxo.eus); Twitter: @CsGetxo; Facebook: Cs Getxo. Telefono-zenbakia: 944660291. Zain gaituzue.



## KOMUN PUBLIKOAK PARKE ETA LORATEGIETAN



PPko kideok berriro adierazi nahi dugu beharrezkoa dela komun publikoen sare bat jartzea parke, pasealeku eta lorategietan. Eskaera historikoa da, herritarrek zein alderdi honek egindakoa. Gaur egun arduragabekeria eta utzikeria erakusten duten komunak aldatzea nahi dugu, besteak beste honako hauek: Aixerrrotako komun publikoa, Balanar hondartzakoa eta Bizkaia Zubiko plazakoa.

Instalazio berriei dagokionez, nabarmendu nahi dugu beharrezkoa dela komunak jartzea parke eta plazetan, hala nola Areetako geltokian. Bide batez, gogorarazi nahi dugu aipatutako azken tokia hobetze aldera askotan eskatu ditugula jardinerak, altzariak eta argi berriak.



## EAJ-PSE ETA PPren ARTEKO ITUN ANTISOZIALA

Aurreko astean, aurtengo udal-aurrekontuetako batzuk jorratu genituen osoko bilkuran. Zati bat bakarrik; zehazki, udalak aurreztutako dirua, zeina EAJ eta PSE-EE alderdiek PPren itundu dituzten partidetakoz batzuk finantzatzeko erabiliko den. Gainerako taldeok proposamenak egin genituen partida horiek hobetzeko xedez, horiek handitzeko eta fondo desberdin gehiagotara bideratzeko; alabaina, itun horren ondorioz, egindako zuzenketa oro automatikoki baztertuko da baldin eta

akordio horretako talde sinatzaileetako batena ez bada. Hala, gobernu-taldeak batera bozkatu zuen egin genuen baterako proposamena, Romoko Nagusien Etxearen eraikina eraberritu eta mantentzeko 300.000 euro erabiltzeko buruzkoa; hori bozkatu zuten nahiz eta behin baino gehiagotan errepikatu "errespetatzen dutela" gure nagusiek Romo Kultur Etxearen eraikin berrira ez lekualdatzeko hartutako erabakia. Gauza bera gertatu zen Nagusien Etxeko erabiltzaileei kendutako zerbitzuak itzultzeko buruz aurkeztu genuen

mozioarekin. Izan ere, gobernu-taldeko apeta hutsagatik, azken egunotan ile-apaindegia, podologia eta fisioterapeuta edukitzeari utzi diote erabiltzaileek, urte-amaierara arte indarrean zegoen kontratua haustea erabaki baita, zerbitzu horiek RKE n eskaintze aldera. Zertarako? EAJk daki bakarrik, baina esan dezakegu hori EZ dela haiek hartutako erabakia errespetatzea daukaten guztia kentzen bazaie, telefono-linea barne. Harremanetarako: [guk@getxo.eus](mailto:guk@getxo.eus) / 944660290.

ehbildu

## ETXEBIZITZA PLANAREN ERAKUSKETA KALEAN, EKAINAK 5,6,7

Ez da berria; Getxon etxebizitza eskuratzeko zaila da kolektibo askorentzat, besteak beste, gazteak, emakumeak, guraso bakarrak... Jakina da hamarkadetan indarrean egon den adreiluaren politikak arazo larria eragin duela gure herrian; gazte ugari herriatik alde egin behar dute, ondorioz, gero eta jendarte zaharragoa daukagu.

Arazoari ezin diogu neurri bakar batekin aurre egin, neurri andana behar dugu osotasunez eta eraginkortasunez erantzuteko. Ho-

rregatik, gure proposamenak kale-aterako ditugu neurri guztien erakusketan baten bidez, **ekainaren 5ean Telletxen 18:00etan, ekainaren 6an Bidezabalaren 18:00etan**



**eta ekainaren 7an Xake plazan 18:00etan.** Bertan herritarrek aukera izango dute etxebizitza arazoari aurre egiteko proposatzen ditugun **12 neurriak** ezagutzeko eta euren iritzia eta proposamenak egiteko.

Planaren ardatz nagusiak honakoak dira: alokairuaren politika sustatzea, etxebizitza ereduaren sakontzea, eta Getxoko parke publikoa zabaldu eta finkatzea. Erakusketan xehetasun gehiago izango dituzue. Getxon lan eta bizi!